

Piarres LARZABAL

Euskal antzerkiaren hatsa
Le nouveau souffle du théâtre basque



txostena
Dossier de presse

Prentsa

Dossier

AZKAINA

mintzaldia - conférence

BILTOKI gela

apirilak 19 avril - 19:00

Mintzaldia euskaraz (avec traduction simultanée en français)
ondotik aperitifa - suivi d'un apéritif


HIZLARIAK - CONFERENCIERS



Ixabel Etxeberria



Jon Casenave



Pantxoa Etxegoin

antolatzaileak - organisateurs:



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL

SAR HITZA

Azkaineko Herriko Etxea eta Euskaltzaindia elkartu dira Piarres Larzabal herriko idazle eta euskaltzaina omentzeko. Iazko udaberrian, Jean Elissalde Zerbitzari idazleari eskaini omenaldiaren arrakasta ikusirik, antzeko ekitaldia antolatzea deliberatu dugu; aurten, apirilaren 19an, 19:00etan Piarres Larzabal, Azkaineko idazle, apez eta euskaltzain izanaren obraz, bizi az eta herriko antzerkigintzan utzi duen ondareaz arituko dira Ixabel Etxeberria eta Jon Casenave. Pantxoa Etxegoin aurkezle-lanetan ariko zaigu eta bideo bidezko lekukotasunak eskainiko ditu gaualdian zehar (P. Larzabal ezagutu zuen Daniel Landarten lekukotasuna eta Larzabalen artxiboko irudiak); antzezlanen irakurraldiak ere ez dira faltako BIL TOKIn emanen den mintzaldian (dohainik). Bukatzeko, Herriko Etxeak zintzur bustitzea eskainiko du.

Piarres LARZABAL (1915-1988)

Piarres Larzabal Azkainen sortu zen, 1915eko maiatzaren 7an.

Apaizteko ikasketak Uztaritzeko Seminario ttikian eta Baionako Seminario handian egin zituen. Soldadugoa Parisen egin zuen, bi urtez, eta han erizain titulua erdietsi zuen eta teatro talde batean aritu zen.

1939an apaiztu zen Hazparnen eta urte berean hasi zen Bigarren Mundu Gerla; berehala, soldadu-erizain gisa altxatu zuten. Gerla ondoan, bi sail akuilatu zituen bereziki: antzerkigintza eta langile gazte giristinoen formakuntza.

1960eko hamarkadan, sekula baino gehiago, abertzaletasunaren alde agertu zen. «Enbata» kazetaren eta mugimenduaren sortzaileen artean izan zen. Euskal iheslariak gero eta gehiago izanik, 1969an, «Anai-Artea» antolatu zuen Telesforo Monzon eta Angel Arregi adiskideekin.

Antzerkigintzari doakionez, Larzabalek hemeretzi urte zituela idatzi zuen bere lehen komedia, 1934ean. «Irri eta nigar» izenburua jarri zion. Profezia bat izan zen. Gerora idatzitako lan guzietan, hain zuzen, irria eta negarra, neurri batean, nahasian erabili zituelako.

Zenbat lan idatzi zuen Larzabalek? Ehun antzezlan baino gehiago, haren esanetan. Ez da kopuru makala! Hainbeste lan mota desberdin erabilirik, hainbeste kezka eta buru-hauste jasanik eta guztiak ere gaingiturik, Zokoako apeza eritu zen eta azken urteak frango hits iragan zituen, ezer idatzi gabe.

Hala ere, arrunt eritu aitzin, «balentriaño» bat asmatu zuen, teatro aire bat zeukana... Bere ehorzketako predikuaren hitzak berak izkiriatzea! Halakorik pentsatu behar zen... Eta horrek ere tira-birak sortu! Bikario nagusiak ez baitzuen horrelakorik onartu nahi. Dena dela, Larzabalen adiskide mina zen Roger Idiart azkaindar apezak irakurri zuen.

Bere "Oroitzapenak" liburuan, hauxe idatzi zuen Larzabalek:

«Askoren ustetan, ni antzerkigile komedialari bat naiz, oroz-gainetik. Gutik duke pentsatzen otoizlari bat izan naitekeela. Bizkitartean anitz aldiz, gauaz eta egunaz, Jainkoarekin eta haren sailduekin kurutzatzen naiz eta luzaz goxatzen... ».

Piarres Larzabal 1988ko urtarrilaren 12an hil zen.

INTRODUCTION

La mairie d'Ascain et l'Académie de la langue basque Euskaltzaindia se sont à nouveau réunies pour rendre hommage à Piarres Larzabal, écrivain et personnage essentiel du théâtre basque originaire du village labourdin. Après le succès remporté au printemps dernier lors de l'hommage rendu à Jean Elissalde *Zerbitzari*, Euskaltzaindia a convié cette année les conférenciers Ixabel Etxeberria et Jon Casenave afin d'évoquer Piarres Larzabal, écrivain, prêtre et académicien d'Ascain, son parcours et bien sûr son œuvre majeure en faveur du théâtre populaire en langue basque. Pantxoa Etxegoin présentera la conférence (gratuite) à Biltoki et proposera des témoignages vidéos (avec un témoignage de Daniel Landart, proche de P.Larzabal et des images d'archives) ainsi que des lectures choisies. A l'issue de la conférence, un apéritif sera offert par la Mairie d'Ascain.

PIARRES LARZABAL

Piarres Larzabal est né à Ascain le 7 mai 1915.

Il a fait ses études sacerdotales au petit séminaire d'Ustaritz puis au grand séminaire de Bayonne. Il a ensuite fait son service militaire à Paris, où il a obtenu son diplôme d'infirmier et joue dans un groupe de théâtre.

De retour au pays, Il fut ordonné prêtre à Hasparren en 1939, début de la Seconde Guerre mondiale.

Après la guerre, il s'impliquera dans deux domaines qui lui tiennent à cœur, à savoir la dramaturgie et la formation de jeunes travailleurs chrétiens. Dans les années 60, il a été un fervent soutien du mouvement de patriotisme basque. Il a fait partie des créateurs du journal *Enbata* et de l'association « Anai-Artea » en 1969, créée en solidarité aux réfugiés basques très nombreux à l'époque, avec ses amis Telesforo de Monzon et Angel Arregi.

Larzabal, écrit sa première comédie théâtrale « Irri eta nigar » (Rire et pleurer) à dix-neuf ans, en 1934 ; un titre prophétique car dans toutes les œuvres qu'il écrira ensuite, il croisera sans cesse les rires et les pleurs. Combien de pièces a-t-il écrit ? Il répondait plus d'une centaine, un chiffre incroyable !

Après avoir travaillé dans des ambiances si différentes, après avoir vécu et surmonté tant de situations difficiles, le prêtre de Sokoa est tombé malade, et a vécu ses dernières années, fatigué et sans rien écrire.

Cependant, malgré son état de santé très fragile, il a eu un dernier coup de génie, écrire lui-même le sermon de son propre enterrement ! Il fallait y penser... Cette initiative a fait encore couler beaucoup d'encre. En effet, le vicaire général fit savoir qu'il ne pouvait pas accepter ça. Mais, malgré les interdictions, Roger Idiart alors prêtre à Ascain et ami intime de Larzabal, respecta sa volonté et lut son sermon lors de ses funérailles.

Dans son livre *Oroitzapenak* (Mémoires), Larzabal écrit :

« Beaucoup pensent que je suis avant tout un dramaturge comédien. Peu de personnes croient que je peux être surtout un homme de prière. Cependant, très souvent, de nuit comme de jour, je croise Dieu et ses saints et je passe de bien bons moments... ».

Piarres Larzabal est décédé le 12 janvier 1988.

HIZLARIAK - CONFERENCIERS



IXABEL ETXEBERRIA
(Urruña, Lapurdi, 1960)

Ixabel Etxeberria urruñarra da, euskara eta euskal literaturako doktore, ikerlari eta idazlea. Piarres LARZABALEN ANTZERKIGINTZA: 1950-1982 EUSKARAZKO ANTZERKI IDENTITARIOAREN PARADIGMAK (2016, Euskaltzaindia) liburua idazlea dugu.

Azkainen, Larzabali buruz idatzi duen tesian ikertu dituen alor ezberdinez ariko da, apez idazle izanaren nortasunetik hasiz, euskal antzerkigintzari ekarri dion berpiztea, haren konzientzia politikoa, euskal gizartea ulertzeko eta islatzeko zuen gaitasun paregabea edota hizkuntzari eman dion tratamendua....



JON CASENAVE
(Baiona, Lapurdi, 1957)


Jon Casenave, Euskal Ikasketetako doktorea (Bordele Montaigne Unibertsitatea) eta Bordele Montaigne Unibertsitateko irakasle izanikoa da. IKER laborategiko kidea eta Euskal literaturan aditua, Euskaltzain urgazlea.

Piarres Larzabal antzerki-egileak anitz antzerki eta pastoral idatzi izan ditu Euskal Herriko kulturatik abiatuz. Horien arteko famatuena ondokoak dira: Berterretx (1955), Orreaga (1964), Sarako lorea (1964), Matalas (1968), Angles ginelarik (1973), Orria (1974)...

Gehienetan, historia eta leindaren gainean oinarritzen zen idazteko. Bainan, bi kasutan, euskal literaturatik hartu izan ditu gaiak eta edukiak: Bordaxuri (1952), Etxahun (1951). Bi antzerki ezagun horietan, Bordaxuriren kobletan eta Etxahun Barkoxekoaren obra poetikoan oinarritu zen Piarres Larzabal. Bi antzerki horiek arrakasta gaitza ukan zuten estrenatu zirelarik. Geroztik, anitz aldiz emanak izan dira.

Orduko kontestua sartze batean aipatu eta bi gai nagusi landuko dira mintzaldian:

- *Bi antzerki horietan nola erabiliak eta landuak izan ziren material eta oinarri historikoak, kulturalak eta literarioak aztertua izanen da.*
- *Bi antzerki horien bitartez zer zen euskal kulturaz zabaldu nahi zen ikusmoldea zehaztuko da.*



PANTXOA ETXEGOIN
(Jatsu, Baxenabarre, 1960)

Pantxoa Etxegoin, Baxenabarreko Jatsun sortua, Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria (1997-2021), antzerkilaria, idazle-itzultzailea, kultura-eragilea, Iparraldeko EATB (Euskal antzerki taldeen biltzarreko lehendakaria izana (1984-1996). Euskal kulturgintzan lan ibilbide oparoa eginik, zaletasun handiak ditu, besteak beste, kantagintzan, irakurketan eta antzerkian. Gaur egun, alor horien inguruan, zenbait egitasmo garatzen ditu.

Azkainen, aurkezle lanak egiteaz gain, Etxegoinek bildutako Piarres Larzabalen artxiboko irudiak eta Daniel Landarten lekukotasunak agertuko ditu mintzaldiaren denboran; Larzabalen antzezlan batzuen pasarteak ere irakurriko ditu entzuleen aitzinean.

Sartzea dohainik. Mintzaldia euskaraz eskainiko da; aldibereko itzulpen-zerbitzu baliatu ahalko delarik.

Azkaineko Herriko Etxeak aperitifa eskainiko du mintzaldiaren bukaeran.

Informazio gehiago galdegiteko:

jiroz@euskaltzaindia.eus

05 59 25 30 56

**Antolatzaileak
Organisateurs**



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA



**EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA**
INSTITUT CULTUREL

HIZLARIAK - CONFERENCIERS



IXABEL ETXEBERRIA
(Urrugne, Labourd, 1960)

Originare d'Urrugne, Ixabel Etxeberria est docteur en Etudes basques ; elle est aussi chercheuse et écrivaine. Elle est l'auteure de *PIARRES LARZABALEN ANTZERKIGINTZA:1950-1982 EUSKARAZKO ANTZERKI IDENTITARIOAREN PARADIGMAK* (2016 Euskaltzaindia).

A Ascain, Ixabel Etxeberria évoquera les différents points de vue qu'elle a étudié dans sa thèse autour de Larzabal ; elle parlera d'abord de son parcours et de sa personnalité, puis de l'importance de son immense travail pour le théâtre en langue basque, de sa conscience politique et de sa capacité à capter la société basque ; elle partagera aussi la façon dont l'écrivain traitait la langue basque dans son œuvre.



JON CASENAVE
(Bayonne, Labourd, 1957)


Jon Casenave est Docteur en Etudes basques (Université Bordeaux Montaigne) et professeur à l'Université Bordeaux Montaigne. Membre du laboratoire de recherches Iker, spécialiste de la littérature basque.

Piarres Larzabal a écrit beaucoup de pièces de théâtre et de pastorales en s'inspirant de la culture du Pays Basque. Les plus célèbres sont Berterretx (1955), Orreaga (1964), Sarako lorea (1964), Matalas (1968), Angles ginelarik (1973), Orria (1974), etc.

La plupart du temps, il s'appuyait sur l'histoire et les légendes basques pour écrire. Mais pour Bordaxuri (1952) et Etxahun (1951), il s'est inspiré de la littérature basque .

Ces deux pièces de théâtre connurent un franc succès dès leur sortie et elles ont été jouées maintes fois depuis. A Ascain, je parlerai en introduction du contexte de l'époque avant d'aborder ces deux thèmes principaux :

- *Comment P. Larzabal a-t-il utilisé les éléments fondateurs de l'histoire, la culture et la littérature basques dans ces deux pièces ?*
- *Quel était le point de vue sur la culture basque que l'auteur voulait partager à travers elles ?*



PANTXOA ETXEGOIN
(Jaxu, Basse-Navarre, 1960)

Pantxoa Etxegoïn (Né à Jaxu, Basse-Navarre), directeur de l'Institut culturel basque (1997-2021), dramaturge, écrivain traducteur, acteur culturel, Président de EATB (Euskal antzerki taldeen biltzarra 1984-1996). Après une longue carrière professionnelle dans la culture basque, il participe à divers projets en lien avec ses domaines de prédilections que sont le chant, la lecture et le théâtre.

A Ascain, il assurera la présentation de la soirée et proposera différentes vidéos, des images d'archives de Piarres Larzabal, le témoignage de Daniel Landart , etc...

Entrée libre. Conférences en langue basque, un service de traduction simultanée sera proposé au public.

Un apéritif sera offert par la mairie d'Ascain pour clore la soirée.

Pour toute information complémentaire :

jiroz@euskaltzaindia.eus

05 59 25 30 56

**Antolatzaileak
Organisateurs**



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL
BASQUE